



Arartekoaren 2022R-924-2022 Ebazpena, 2022ko irailaren 30ekoa. Horren bidez, Sestaoko Udalarari gomendatzen zaio, batetik ibilgailuak bidetik kentzeko tasa gisa igorritako likidazioa baliogabetzeko, eta, bestetik, kaltetuari bidegabe kobratutako zenbatekoa itzultzeko, ez baita frogatu ordainarazpena justifikatzen duen zerga-egitatea gertatu denik.

Aurrekariak

1. Interesdunaren kexa da administrazio horrek ez diola erantzunik eman Udalerregistro Orokorrean aurkeztu zuen idazkiari. Bertan adierazi zuen ez zegoela ados udaltzain batek bere ibilgailuaren kontra 2021eko urriaren 20an salaketa bat jarri izanarekin. Salaketa hori egin zuen, hain zuzen ere, gelditzeko balazta ez zuelako guztiz segurtatu eta ibilgailua mugitu egin zelako, beste ibilgailu bat kolpatzeraino. Arrazoi hori dela eta, ibilgailua kendu zioten. Era berean, ibilgailua udal-biltegitik berreskuratzeko ordaindu behar izan zuen zenbatekoa (141 euro) itzultzeko eskatu zuen.

Bere kexa-idazkian adierazi zuenez, ibilgailua jasotzera joan zenean, horri bultza egitea erabaki zuen, esku-balazta emanda zegoen ikusteko, eta ohartu zen autoa ezin zela mugitu. Inguruan zegoen polizia-agente bati hurreratzeko eskatu zion, eta hark egiaztatu zuen balazta bazegoela emanda.

2. Kexa onartu eta aztertu ondoren Arartekoak Sestaoko Udalera jo zuen eta azaldutako gaiei buruzko informazioa eta aipatutako gertakariei dagozkien administrazio-espedienteen kopia bat eskatu zion.

3. Arartekoari bidalitako informazioan jakinarazten da ez dela zehapen-prozedurarik hasi eta ez dela isunik ezarri, ez Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen babespean, ez Trafiko, Motordun Ibilgailuen Zirkulazio eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 6/2015 Legegintza Errege Dekretuaren babespean.

Hala, tasa kobratzeari buruz baino ez digu jakinarazi. Bidalitako txostenaren arabera, salaketa-buletina kontuan hartuz, 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 193. artikulua a), b) eta h) ataletan aurreikusitako hipotesiak aldi berean gertatzen ziren, eta beraz honako hau xedatu da: *"hay hecho imponible, la retirada del vehículo, que se ha hecho motivadamente y gravándose mediante una tasa que no tiene más intención que sufragar los gastos de tal retirada"*.





4. Udalak helarazitako informazioa aztertu da. Bertan jakinarazten da ez dagoela esku-balazta guztiz ez segurtatzeagatik hasi den zehapen-prozedurarik edota zehapen-ebazpen batek xedatuta ezarri den isunik. Erakunde honek ibilgailua kentzeagatik tasa zuzenbidearekin bat datorren aztertu zuen, eta 2022ko ekainaren 29an Udalaren laguntza eskatu zuen, 10 eguneko epean jakinarazi zezan ibilgailua kentzeagatik tasa gisa igorritako likidazioa ofizioz baliogabetzeko prest zegoela eta kaltetuari behar ez bezala kobratutako zenbatekoa itzultzeko, ez baitzen egiaztatu ordainarazpena justifikatzen duen zergapeko egitatea gertatu zenik.
5. Denbora tarte bat igarota ere, Udalak erakunde honi ez dio jakinarazi azaldutako ildotik jarduteko asmorik.

Gogoetak

1. Erreklamazioaren oinarriaren harira, aipatzekoa da ibilgailuak bide publikotik kentzeagatik tasa arautzen duen Sestaoko Udaleko zerga-ordenantzako 2. artikulua haxe diola:

“Ordainarazpen honen zerga-egitatea da udal zerbitzuak emateko eskatzen diren bitarteko pertsonal eta materialak erabiltzea ibilgailuak bide publikotik kentzeko, immobilizatzeko eta udal instalazioetan gordetzeko lanetan, zirkulazioa nahastu, oztopatu edota traba egitearen ondorioz Zigor Kodeko, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legeko eta bat datozen gainerako xedapenetako arauak urratzeagatik edota ibilgailuak abandonatzeagatik ezartzen direnak.”

Hau da, Sestaoko Udaleko udal ordenantzaren testuan adierazitakoaren arabera, tasaren zergapeko egitatea nahastea, oztopoa edo traba eragiten duten ibilgailuak bide publikotik kentzeko lanak bideratze aldera behar diren bitartekoak erabiltzeagatik sortzen da, betiere, zigortzeko edo trafikozko arauak haustearen ondorioz gertatu bada.

2. Gauzak horrela, tasaren ordainarazpena zerga-egitatea sortzeko ordenantzan ezarritako inguruabarrak gertatzen diren neurrian besterik ez da bidezkoa.

Horri dagokionez, azpimarratu beharra daukagu, gure ordenamendu juridikoaren arabera, ibilgailua bide publikotik kentzea administrazioek alde aurretik mugatutako kasu batzuetan har dezaketen kautelazko neurri bat dela, baldin eta kentzeko betebeharra duen pertsonak ez badu kendu. Kasu horiek, esku-hartzearen





unean, Trafikoari Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuko 105. artikuluan ezartzen zirenak ziren.

Legeak ibilgailua bidetik kentzeko baldintza gisa ezartzen duen inguruabar larri hori alegatzaileak frogatu beharko du, horretarako izapidetutako zehapen espedienteetan.

Hau da, auzitegietak jurisprudentziak aitortu duen bezala, *“la retirada de los vehículos no es el producto de una potestad discrecional de la Administración sino de una potestad reglada, lo que cierra la puerta a toda arbitrariedad, incluso a todo margen de discrecionalidad. Por tanto, comprobado que el vehículo había sido estacionado en lugar no autorizado y que el conductor estaba ausente, procedía, en primer término, denunciar la infracción, y en el caso – y sólo en ese caso – de que el vehículo indebidamente estacionado ocasionase peligro u obstaculizase el tráfico procedería también acordar su retirada, precisamente porque sólo entonces se produciría el efecto útil de la medida...”* [1994ko urtarrilaren 27ko Balearretako AGE (Administrazioarekiko Auzietako Sala) RJCA 1994/373 (3. oinarri juridikoa)].

Hau da, aparkatzeagatiko balizko arau-haustea egiteak ez du bere baitan zehazten gaizki aparkatuta dagoen ibilgailua kendu behar denik; izan ere, ibilgailua kentzeko arau-haustearen gaineko plus bat eskatzen du eta tokiko erakunde horrek egiaztatu beharko du halakorik gertatzen dela, alegatzailea den heinean. Jakina, proba hori horretarako izapidetutako zehapen-prozedura administratiboaren esparruan aurkeztu beharko da. Trafikoko zehapen-prozedura hori, toki-erakunde horrek aitortzen duenez, ez da izapidetu eta sei hilabete baino gehiago igaro dira salaketa egunetik.

3. Gauzak horrela, ezin dugu onartu tasa hori kobratzea bidezkoa denik; izan ere, ibilgailua erretiratzeko kautelazko neurri bat hartzea eta ondoren ordainaraztea trafikoaren arloko administrazio-prozedura zehatzaile bat egongo balitz baino ez litzateke justifikatuko, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legean behar bezala izapidetua eta tipifikatua. Hori dela eta, kautelazko neurriari estaldura ematen dion zehapen-prozedura administratiborik ez dagoenez, irregularra da neurri hori hartzea, eta, ondorioz, baita arrazoi horrengatik edozein tasa ordainaraztea ere.





Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten diogu Sestaoko Udalari, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

GOMENDIOA

Azaldutakoaren ondorioz, erakunde honek uste du Udalak ofizioz baliogabetu beharko lukeela ibilgailua kentzeagatiko tasa gisa igorritako likidazioa, eta kaltetuari bidegabe kobratutako zenbatekoa itzuli beharko liokeela, ez baita frogatu ordainarazpena justifikatzen duen zergapeko egintza gertatu denik.

